Lan-eskaintzen erregistroa 2022ko apirilean

ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

2022ko apirilean Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopurua 888 izan da, martxoan baino 517 gutxiago eta joan den urteko apirilean baino 216 gehiago.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen (KAU) lurralde historikoari erreparatuz, 2022ko apirilean 126 lan-eskaintza erregistratu dira Araban, 360 Gipuzkoan eta 402 Bizkaian. Lan-eskaintzen % 45,3 Bizkaiko KAUetan erregistratu dira, % 40,5 Gipuzkoakoetan eta % 14,2 Arabakoetan.



Aurreko hilabetearekin alderatuz, Araban % 44,7 murriztu dira eskaintzak (102 eskaintza gutxiago). Gipuzkoan 201 eskaintza gutxiago izan dira (% 35,8ko murrizketa) eta Bizkaian 214 gutxiago (% 34,7ko murrizketa).

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, Araban 15 eskaintza gehiago erregistratu dira, % 13,5eko hazkundea, Gipuzkoan % 30,9 hazi dira (85 eskaintza gehiago), eta azkenik, Bizkaian % 40,6koa da hazkundea (+116 eskaintza).

• LAN-ESKAINTZAKO LANBIDEA

Bost lanbide-profilek biltzen dituzte EAEn erregistratutako lan-eskaintza gehienak. % 22,1 zientzietako teknikarien profilerako erregistratu dira (196 eskaintza); eta, % 19 zerbitzuetako profilerako (169 eskaintza). Laguntzako teknikari, Industria eta kualifikatu gabeko profileko lan eskaintzek, ere, pisu nabarmena dute;148, 114 eta 108 eskaintza erregistratu dira, hurrenez- hurren. Lan-eskaintza gutxien erregistratu diren profilak, zuzendariak eta lehen sektorekoak izan dira, 6 eta 7 eskaintza hurrenez hurren.

Aurreko hilabeteko datuekin alderatuz, eskaintza mota guztietan murriztu dira eskaintzak. Gehien murriztu diren eskaintzak, bai balio absolutu zein erlatiboetan, industriako profilekoak izan dira (120 eskaintza gutxiago, % 51,3ko murrizketa).

Urte arteko saldoari erreparatuz, profil gehienetako eskaintzak hazi dira. Gehien hazi direnak, balore absolutuetan, zientzietako teknikarien profilekoak izan dira (73 eskaintza gehiago, % 59,3ko hazkundea); balore erlatiboetan, aldiz, laguntzako teknikarien profileko eskaintzak izan dira gehien hazi direnak (%64,4ko hazkundea, 58 eskaintza gehiago). Murriztu diren eskaintza bakarrak lehen sektorekoak (-3) eta operadoreen eskaintzak (-4) izan dira.

• KONTRATU MOTA

Erregistratutako lan-eskaintzen % 30,5ek kontratu mugagabea eskaini dute; % 69,3k, aldi baterakoa, eta, gainontzeko % 0,2ak, merkataritzakoa. Kontratu mugagabea eskaini duten eskaintzen portzentaia altua da; 2021etik zetorren joera indartzen ari da 2022an. Balio absolutuetan, kontratu mugagabeen eskaintzak 271 izan dira, aurreko hilabetean baino 85 eskaintza gutxiago (%23,9ko igoera). Aldi baterako kontratuak eskaini dituzten 425 eskaintza gutxiago erregistratu dira: 615 eskaintza izan dira guztira. Kopuru erlatiboetan murrizketa % 40,9koa izan da. Azkenik, merkataritzako kontratuen eskaintzak 2022ko apirilean 2 izan dira, aurreko hilean baino 7 gutxiago.



Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeen eskaintzak 178 gehiago izan dira (% 191,4ko hazkundea), aldi baterako kontratuen eskaintzak % 7,5 hazi dira; 43 eskaintza gehiago, eta, merkataritzako kontratuak, azkenik, 5 gutxiago erregistratu dira.

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA

2022ko apirilean erregistratutako lan-eskaintzen % 74,5ek, 662 eskaintzak, 0tik 6 hilabetera arteko esperientzia minimoa eskatzen dute. Eskaintzen % 12,4k (110 eskaintza) 6 eta 12 hilabete arteko esperientzia eskatzen dute. Portzentaia txikiagoak dituzte esperientzia-denbora luzeagoak eskatzen dituzten eskaintzek; 3 urtetik 5 urtera eskatzen dutenek % 2,4ko pisua dute (21 eskaintza) eta, aipatzekoa da, 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen duen eskaintzarik ez dela egon hil honetan.



Hilabete arteko eboluzioari dagokionez, eskaintza guztiak murriztu dira. Gehien murriztu direnak, balio absolutuetan, 0 eta 6 hilabete arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira (336 eskaintza gutxiago, % 35,3ko murrizketa). Balio erlatiboetan, berriz, 6 eta 12 hil arteko esperientzia denbora eskatzen dutenak izan dira murrizketa nabarmenena izan dutenak (% 45,3ko murrizketa, 91 eskaintza gutxiago).

Urte arteko eboluzioari dagokionez, gehien hazi direnak, bai balore absolutu zein erlatiboetan, 0 eta 6 hilabete arteko esperientzia denbora eskatzen dutenak izan dira (239 eskaintza gehiago, % 56,5eko hazkundea); 1-3 urte arteko esperientzia eskatzen dutenak ere hazi egin dira (16 eskaintza gehiago, %20,2ko hazkundea). Beste muturrean, 6 eta 12 hilabete arteko esperientzia

eskatzen dutenak izan dira gehien murriztu direnak (-36 eskaintza, %24,7ko murrizketa). 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen dutenak 2tik 0 izatera pasa dira, beraz % 100eko murrizketa jasan dute.

Erregistratutako eskaintzek, batez beste, 7 hileko esperientzia eskatzen dute, aurreko hilean bezain beste.

- **LANALDI MOTA**

Analisiarekin jarraitu baino lehen, esan beharra dago ez dutela erregistratutako eskaintza guztiek zehazten zein izango den lanaldi mota: soilik eskaintzen % 10,3k zehazten du datu hori (888 eskaintzetatik 109). 109 eskaintza horietatik, 85ek lanaldi osoa eskaintzen dutenak izan dira, eta, gainontzeko 24ak, lanaldi partziala eskaini dute.



Eboluzioari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 59 gutxiago izan dira martxoarekin alderatuz, hau da, % 41 murriztu dira. Lanaldi partzialeko eskaintzak, berriz, 2 gutxiago izan dira; murrizketa erlatiboa % 7,7koa izan da.

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, eboluzioa hurrengoa da: lanaldi osoko eskaintzak 4 gehiago izan dira (% 4,9ko hazkundea), eta lanaldi partzialeko kasuan, 5 gutxiago izan dira (% 17,2ko murrizketa).

- **ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)**

Hil honetan 12 lan eskaintza kudeatu dira ABLEn bitartez, aurreko hilean baino 22 eskaintza gutxiago eta aurreko urtean baino 3 gutxiago.

- **ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA**

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 82,1ek ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 888 eskaintzetatik 159k soilik zehaztu dute.

159 eskaintza horietatik, 65ek LHko prestakuntza maila eskatu dute; ikasketa maila hau duten eskaintzak izan dira ugarienak. Ondoren, unibertsitateko ikasketa mailak eskatzen dituztenak daude, 61 eskaintza erregistratu dira. Azkenik, oinarrizko eta batxilergoko ikasketak eskatzen dutenak daude (20 eta 13 eskaintza, hurrenez hurren).



Hilabete arteko erlazioari erreparatuz, batxilergoko ikasketak eskatzen dituztenak hazi dira soilik (+3). Gehien murriztu diren eskaintzak, balio absolutuetan, unibertsitateko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira (35 eskaintza gutxiago, % 36,5eko murrizketa); balio erlatiboetan, aldiz, gehien murriztu direnak derrigorrezko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira (% 54,5eko murrizketa, 24 eskaintza gutxiago).

2021eko apirilarekin alderatuz eskaintza mota guztiak hazi dira, derrigorrezko ikasketak eskatzen dituztenak izan ezik; horien kasuan, 9 eskaintza gutxiago erregistratu dira (- %31ko beherakada). Gehien hazi direnak, bai balore absolutu zein erlatiboetan, unibertsitateko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira 23 eskaintza gutxiago jasota (% 60,5eko hazkundea).

• ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopuruari dagokionez, gehien nabarmentzen dena profesional zientifiko-teknikoak izan da; honen pisua eskaintza guztien % 14,9koa izan da (132 eskaintza). Nabarmentzeko beste jarduera bat manufaktura industria da, eskaintzen % 14,1eko pisuarekin (125 eskaintza).

Aurreko hilari erreparatuz, ia eskaintza guztiak murriztu dira. Balio absolutuetan, gehien murriztu diren eskaintzak, ostalaritzakoak izan dira (92 eskaintza gutxiago, % 58,8ko murrizketa); balio erlatiboetan, aldiz, beherakada nabarmena finantza eta aseguru jarduerek jasan dute (% 76,9ko beherakada, 10 eskaintza gutxiago). Beste muturrean profesional zientifiko-teknikoen eta argindar horniketakoen eskaintzak daude, hauek izan baitira hazi diren bakarrak (5 eta eskaintza 1 gehiago, hurrenez hurren).

Urte arteko saldoari erreparatuz, bilakaera hoberena izan duten eskaintzak, bai balore absolutu zein erlatiboetan, zientifiko-teknikoak izan dira (82 eskaintza gehiago, %164ko hazkundea). Bilakaera txarrena eduki dutenak, aldiz, eraikuntzakoak eta artistikoak izan dira; 7 eskaintza gutxiago erregistratu dira 2 kasuetan.